RESOLUCIÓN 31/2015, de 9 de enero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se anuncia convocatoria publica para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de trabajo de Subdirector/a de Gestión, Organización y Desarrollo de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Subdirector/a de Gestión, Organización y Desarrollo de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES

Primera.– El puesto de trabajo Subdirector/a de Gestión, Organización y Desarrollo de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

1) Titulación Académica: hallarse en posesión de cualquier Licenciatura Universitaria de las referidas en los Grupos A1 y A2.

2) Perfil Lingüístico: 3, sin fecha de preceptividad.

3) Experiencia: disponer de 5 años de experiencia en el desempeño de tareas propias de los Grupos Profesionales A1 y A2.

Segunda.– Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Recursos Humanos de la Organización Central de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Osakidetza

Tercera.– Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae en el que harán constar:

– Títulos Académicos.
– Puestos de trabajo desempeñados.
– Experiencia profesional y de gestión sanitaria.
– Estudios, cursos, ponencias, publicaciones conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinta.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de enero de 2015

Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

31/2015 EBAZPENA, urtarrilaren 9koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Kudeaketa, Antolaketa eta Giza Baliabideen Garapeneko zuzendariorde lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Kudeaketa, Antolaketa eta Giza Baliabideen Garapeneko zuzendariorde lanpostua hutsik dago. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, zuzendaritza nagusi honek, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du. Hona hemen horretarako ezarri diren

OINARRIAK

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Kudeaketa, Antolaketa eta Giza Baliabideen Garapeneko zuzendariorde lanpostua betetzeko ebazpen honen bitartez egiten den deialdira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionario, estatutario nahiz lan-kontratuko langile finkoak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak eta baldintza hauek betetzen dituzten gainerako langileak aurkeztu ahal izango dira:

1) Titulu akademikoa: A1 eta A2 taldeetako edozein unibertsitate-lizentziatura eduki beharko dute.

2) Hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe.

3) Esperientzia.- 5 urteko esperientzia izan beharko dute, A1 eta A2 lanbide-taldeetako zereginetan.

Bigarrena.- Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzan aurkeztuko dituzte eskabideak, 10 egun baliodunek epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Horretaz gain, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan eta moduen bitartez ere aurkez daitezke (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Osakidetza

Hirugarrena.- Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitaea aurkeztu beharko dute:

- Titulu akademikoak.
- Betetako lanpostuak.
- Lanbideko eta kudeaketa sanitarioko esperientzia.
- Ikasketak, ikastaroak, hitzaldiak, argitalpenak, hizkuntza-ezagutzak eta egoki iritzitako beste meritu batzuk.

Izangaiek eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 9an.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD